



Arartekoaren ebazpena, 2010eko irailaren 15ekoa. Horren bidez, Sestaoko Udalari gomendatzen zaio ofizioz baliogabetu dezan (...) zk.ko likidazioa, ibilgailuak kendu, ibilgetu eta gordetzeagatik ordaindu beharreko tasarengatik igorritakoa, eta itzul diezaion eragindakoari behar ez bezala kobratu zaion diru-kopurua; izan ere, ez da egiaztatu ordainarazpena justifikatzen duen zergapeko egitaterik egon denik.

Aurrekariak

1. Erreklamatzailak Sestaoko Udalaren jokabidearekin ados ez zegoela adierazi zuen, toki-erakunde horrek 157,87 euro baitu baitzizkion haren kontu-korranteetatik, bere jabetzako ibilgailu bat bide publikotik kendu izanagatik. Eragindakoak adierazi zuenez, tasaren zergapeko egitatea ez zen gertatu, izan ere, garabiak ez zuen bere ibilgailua eraman eta berak ez zuen inolako zigorrik jaso ibilgailua kentzeko aukera sor zezakeen trafikoko arau-hausteren batengatik.

Halaber, azaldu zuenaren arabera, Sestaoko Udalak tasaren likidazioa 2008ko urtarrilean jakinarazi zionetik, toki-erakunde horren aurrean likidazioaren jatorria zalantzan jarri zuen, arrakastarik lortu gabe.

2. Kexagilearen esanetan ibilgailua kentzea justifika zezakeen trafikoko administrazio arloko zigor-prozedurarik ez zegoenez eta, hitzak ez errepikatzearren, ondoren azalduko dugun argudiaketaren oinarria kontuan hartuta, erakunde honek Sestaoko Udalaren laguntza eskatu zuen igorritako likidazioa berrikus zezan.
3. Duela gutxi Sestaoko Udalak erakunde honi adierazi dionaren arabera, 2009ko abenduaren 9ko Alkatetza Dekretu bidez, 2009ko urtarrilaren 2an jakinarazitakoa, erreklamatzailak aurkeztu zuen berraztertze errekurtsoa baliogabetu zen, eta beraz, ezarritako likidazioak indarra hartu du. Halaber, bidalitako informazioaren osagarri gisa, espedientean zeuden bi polizia-txostenen kopia gaineratu du, bai eta 2010eko maiatzaren 27ko polizia-txosten berri bat ere, jarraitutako prozedura azaltzen zuena.





Azken txosten horretan honako hauxe ezartzen da:

“EUROCOP Tokiko Poliziaren kudeaketa-programa aztertu ondoren ikusi ahal izan dugunez, 2007ko abenduaren 1ean, (...) ibilgailuak salaketa jaso zuen zirkulaziorako erreian aparkatu izanagatik, zabor-bilketaren kamioiari bidea oztopatzen baitzion. Garabiari deitu zioten eta, hura heldu aurretik, (...) jauna agertu zen ibilgailua kentzeko.

Udaltzaingoaren Administrazio Unitatearen isunen kudeaketa-programa aztertu ondoren, ez dugu antzeman salaketa hori (...) jaunaren aurka bideratu denik, ez eta haren ibilgailuaren aurka ere. Halaber, ezin izan dugu aipatu salaketa paperean ikusi, batez ere salaketa egin eta ondorengo hilabeteetan Sestaoko Udalean trafikoko zigorren saila berrantolatu zela kontuan hartuta.

Adierazitakoa gora behera, salaketaren buletina egon edo ez, horrek ez du galarazten trafikoa erregulatzeko lana, eta zenbaitetan, garabiaren zerbitzua ezinbestekoa da ibilgailua gaizki aparkatuta dagoenean eta bidearen gainontzeko erabiltzaileak igarotzea eragozten duenean, emergentzia zerbitzuak edo hiriko hondakin solidoen bilketarako kamioiak barne. Garabiaren zerbitzuak sortutako gastuak eskatzaileak ordaindu behar ditu, izan ere, udal-ordenantzek zehaztutakoaren arabera, tasa horiek garabiaren zerbitzura deitzerakoan igorriko dira, eta ez da beharrezkoa izango ibilgailua krokatu eta gordailura eramatea.

Erreklamazio hori ikusirik, kexan eta Sestaoko Udalak bidalitako informazioan esandakoa aztertu ondoren, egokia iruditu zaigu zuri honako gogoeta hauek helaraztea:

Gogoetak

1. Lehenik eta behin, Sestaoko Udalaren alegazioa bideratu behar dugula uste dugu, hau da, hizpide dugun likidazioa sendotzat jotzen duena, eragindakoak ez baitu administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean 2008ko abenduaren 9ko Alkatetza Dekretua aurkeztu, eta horren bidez toki-erakunde horrek atzera bota zuen igorritako likidazioaren aurka erreklamatzailerak jarri zuen berraztertze errekurtsoa.

Alegazio hori ikusita, beharrezkotzat jo dugu toki-erakunde horri gogoraraztea otsailaren 27ko 3/1985 legeak -Ararteko erakundea arautzen duenak- erakunde honi esleitu dizkion zerga-eskumenak.

Egia da justizia-auzitegiei dagokiela erregelamendu-ahalmena eta administrazio jardueraren legaltasuna kontrolatzea, Konstituzioaren 106.1. artikulua onartzen duenari jarraiki. Hala eta guztiz ere, justizia-auzitegiak



zuzendutako errekurtsioa ez da botere publikoen jardueren aurrean herritarrek duten berme bakarra.

lido horri jarraiki, gure zuzenbide estatuak herritarrei eskaintzen dion berme-sistema bikoitza aipatu beharra dago. Gauzak horrela, alde batetik jurisdikzio alorreko bermeak ditugu, justizia-auzitegietan bilduta eta, bestetik, erakunde alorreko bermeak, Espainiako Konstituzioaren 54. artikuluan jasota eta adierazita. Alor horretantxe biltzen da Ararteko erakundearen ikusketa lana.

Aurrekariari dagokienez, azpimarratzekoa da gure ordenamendu juridikoak legebiltzarreko ordezkari guztiei ematen dien baliagarritasuna, administrazio publikoen jardueran legaltasunaren babesle diren heinean. Gauzak horrela, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta aratzekoak- Zioen Adierazpenean adierazten duenaren arabera, Arartekoa zera da: "herritarrek ardulararitza on bat izateko duten eskubidea babesteko eta legetasun-araurako oinarrizpidearen bermea izateko Ardulararitza zainpetzera jotzen duen ihardutze-sail bat dugu."

Zehazkiago, lege horren 1.2. artikulua dioenez, Herritarrak agintari eta agintaritza-gehiegikerietatik eta Euskal Herri-Ardularitzaren utzikerietatik babestea du bere xede nagusia. Lan hori gomendio honetan biltzen da.

Beraz, gure ordenamendu juridikoak erakunde honi esleitzen dizkion kontrolerako ahalmenek gure zuzenbide estatuan justizia auzitegiek bideratzen duten jurisdikzio funtzioa osatzen dute. Nolanahi ere, herritarrei dagokie bide batera edo bestera jotzea euren eskubideak defendatzeko.

2. Erreklamazioaren oinarriaren harira, aipatzekoa da ibilgailua bide publikotik kentzeagatik, ibilgetzeagatik eta Sestaoko Udaleko udal bulegoetako gordailuetan uzteagatik tasa arautzen duen zerga ordenantzako 2. artikulua haxe diola:

"Ordainarazpen horren zerga egitatea haxe da: Zigor Kodearen, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen eta horren inguruko gainontzeko xedapenen arauak urratzearen ondorioz ematen den zirkulazio librearen nahasmendu, eragozpen edo oztopatzearen zioz edo ibilgailua abandonatzearen ondorioz, bide publikotik ibilgailuak kentzeko lanen, ibilgetze lanen eta zehazten diren udal bulegoetan ibilgailuak gordetzeko lanen ondotik, udal zerbitzuen prestazioak eskatzen dituen bitarteko pertsonalak eta materialak erabiltzea."

Hau da, Sestaoko Udaleko udal-ordenantzan adierazitakoaren arabera, tasaren zergapeko egitatea zirkulazio askea galarazten, oztopatzen edo moteltzen duten ibilgailuak bide publikotik kentzeko lanak bideratze aldera behar diren bitartekoak erabiltzeagatik sortzen da, betiere, zigortzeko edo trafikozko arau-



haustearen ondorio gertatu bada. Gauzak horrela, ordenantzaren arabera zergapeko egitatea sortzen duten hiru egoerak biltzen direnean bakarrik ordainaraziko da aipatu tasa:

- Ibilgailua kentzeagatik egindako lanak
- Ibilgailua aparkatzean zirkulazio librea galarazten, oztopatzen edo moteltzen bada.
- Eta zuzenbidearen arabera bideratutako zigortzeko edo trafikozko arau-haustea.

Ildo horri jarraiki, azpimarratu behar dugu, gure ordenamendu juridikoaren arabera, ibilgailua bide publikotik kentzea kautelazko neurria dela, aldez aurretik zehaztutako egoeretan administrazioek har dezaketen neurria, betiere, horretara derrigortuta dagoenak halakorik egiten ez badu. Egoera horiek, esku hartzen den unean, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartzen duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 71. artikulua zehazten ditu.¹

Egoera berezi eta zail hori gertatzen denean, legearen arabera ibilgailua bidetik kentzea dakarrena, alegatzen duenak egiaztatu beharko du, helburu horretarako izapidetutako zigor-espedientean.

Hau da, auzitegien jurisprudentzia onartu duen moduan, "ibilgailuak kentzea ez da administrazioaren eskumeneko ahalmenaren ondorio, araututako ahalmenaren ondorio baizik, eta beraz, ez dago lekurik inolako arbitrariotasunentzat, ez eta zuhurtziarakotasun tarterentzat ere. Hori dela eta, ibilgailua baimenduta ez dagoen leku batean aparkatuta dagoela eta gidaria bertan ez dagoela egiaztatuta, bidezkoa da, lehenik eta behin, arau-haustea salatzea, eta baldin eta -eta bakarrik baldintza hau betetzen bada- gaizki aparkatuta dagoen ibilgailuak arriskua sortuko balu edo trafikoa oztopatuko balu, egokia liteke bertatik kentzea, halakoetan bakarrik izango baitu helburu eraginkorra neurri honek..." [STSJ Balearrak (Administrazioarekiko Auzietako Sala), 1994ko urtarrilaren 27^a, RJCA 1994\373 (FJ3)].

Hau da, aparkatzeagatiko balizko arau-haustea egiteak ez du bere bahitan zehazten gaizki aparkatuta dagoen ibilgailua kendu behar denik, izan ere, ibilgailua kentzeko arau-haustearen gaineko plus bat eskatzen du, eta erakunde honek egiaztatu beharko du halakorik gertatzen dela, alegatzen duen pertsona den heinean. Logikoki, egiaztapen hori helburu horretarako izapidetutako administrazioaren alorreko zigor-prozeduraren baitan eskaini beharko da. Trafikoaren alorreko zigor-prozedura hori, toki erakunde horrek aitortzen

¹ Azaroaren 23ko 18/2009 Legeak (283. BOE, azaroaren 24koa), Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua aldatu zuen, 1990-3-2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartu zena, eta besteak beste, Legegintza Errege Dekretu horren V. izenburua berridatzi zuen; hori dela eta, gaur egun, 71. artikuluari egindako erreferentziak arau horren 85. artikuluari dagokio.



duenez, ez zen inoiz izapidetu eta trafikoaren buletina ezin izan da paperean aurkitu .

Gauzak horrela, ezin dugu onartu tasa hori kobratzeko arrazoa, izan ere ibilgailua kentzearen kautelazko neurria hartu izana eta ondoren ordainarazi izana justifikatzeko, trafikoaren alorreko administrazioko zigor-prozedura egon beharko luke, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatuaren 71.1. artikuluan -une hartan indarrean zegoena- behar bezala izapidetuta eta tipifikatuta dagoena. Hori dela-eta, kautelazko neurria defendatzen duen administrazioko zigor-prozedura egon ezean, hura hartzeko prozedura irregularra izatea eta, ondorioz, arrazoi horrengatik edozein tasa ordainaraztea.

Hori guztia dela eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, honako gomendio hau egiten da:

22/2010 GOMENDIOA, irailaren 15ekoa, Sestaoko Udalari egina

Arartekoaren ebazpena, 2010eko irailaren 15ekoa. Horren bidez, Sestaoko Udalari gomendatzen zaio ofizioz baliogabetu dezan (...) zk.ko likidazioa, ibilgailuak kendu, ibilgetu eta gordetzeagatik ordaindu beharreko tasarengatik igorritakoa, eta itzul diezaion eragindakoari behar ez bezala kobratu zaion diru-kopurua; izan ere, ez da egiaztatu ordainarazpena justifikatzen duen zergapeko egitaterik egon denik.